

# **Eleaniztasuna eta euskara: hegoaldeko haur eta lehen hezkuntza irakasleen usteak eta jarrerak<sup>1</sup>**

**El multilingüismo y el euskera: creencias y actitudes del profesorado de educación infantil y primaria**

**Plurilinguisme et langue basque : croyances et comportements des enseignants du primaire au Pays Basque Sud**

**Multilingualism and Basque: beliefs and attitudes of infant and primary education teachers**

GARTZIARENA, Mikel

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila  
University of the Basque Country (UPV/EHU)  
Didactics of Language and Literature  
mikel.gartziarena@ehu.eus

ALTUNA, Jon

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
Hezkuntza Zientziak Saila  
University of the Basque Country (UPV/EHU)  
Educational Sciences  
jon.altuna@ehu.eus

Noiz jaso: 2022-04-10

Noiz onartua: 2022-06-08

---

<sup>1</sup> Lan honek Eusko Jaurlaritzaren (IT 1666-22) eta Estatuko Ikerketa Agentziaren diru-laguntzak (PID2019-105818GB-I00) jaso ditu.

Ikerlanaren helburua da Hegoaldeko Haur eta Lehen Hezkuntza irakasleek euskara, gaztelania, ingeles eta frantsesarekiko usteak neurtzea honako bost alorretan: bat, norberaren hizkuntza-mailan; bi, hizkuntza bakoitzari emaniko garrantzian; hiru, hizkuntza horiek ikas-teko zailtasunean; lau, ikerketan baliatutako galdetegiko hizkuntza-hautaketan, eta bost, hizkuntza-hautaketa horren arrazoian. Emaitzek irakasleen hizkuntza-usteak eta -jarrerak sakonago ezagutzea ahalbidetuko dute.

**Gako-hitzak:** eleaniztasuna, irakasleen usteak, Haur eta Lehen hezkuntzako irakasleak, hizkuntza minorizatua, hezkuntza eleaniztuna.

El objetivo del estudio es analizar las creencias del profesorado de Educación Infantil y Primaria del País Vasco peninsular hacia el euskera, el castellano, el inglés y el francés en cinco áreas: una, su propio nivel lingüístico; dos, en la importancia dada a cada idioma; tres, en la dificultad de aprender estos idiomas; cuatro, en las opciones de idioma del cuestionario utilizado en la investigación, y cinco, en el motivo de esa elección de idioma. Los resultados permitirán una comprensión más profunda de las creencias y actitudes lingüísticas de los profesores.

**Palabras clave:** multilingüismo, creencias del profesorado, profesorado de educación infantil y primaria, lengua minorizada, educación multilingüe.

L'objectif de cette recherche est d'analyser les croyances des enseignants du primaire au Pays Basque Sud vis-à-vis du basque, de l'espagnol, de l'anglais et du français dans cinq domaines : un, son niveau linguistique, deux, l'importance accordée à chaque langue, trois, la difficulté d'apprentissage de ces langues, quatre, les choix de langue du questionnaire utilisé pour la recherche, et cinq, motif du choix de la langue. Les résultats permettront une compréhension plus profonde des croyances et des comportements linguistiques des professeurs.

**Mots-clés :** plurilinguisme, croyances des professeurs du primaire, langue minoritaire, éducation plurilingüe.

The aim of this study is to discover Pre-primary and Primary Education teachers' beliefs toward the Basque, Spanish, English and French in the South of the Basque Country (Hegoalde) about these five aspects. One, the language level; two, the relevance given to the languages; three, the difficulty to learn the languages; four, the language chosen to complete the survey; five, the reason for choosing the language. Findings in this paper give insight about the beliefs and attitudes towards these languages.

**Keywords:** multilingualism, teachers' beliefs, in-service teachers, minority language, multilingual education.

GARTZIARENA, Mikel, ALTUNA, Jon (2022). «Multilingualism and Basque: beliefs and attitudes of infant and primary education teachers», *Euskera*, 2022, 67: 11-31.

## 1. Sarrera

Hezkuntza gakoetako bat da euskararen transmisioan, eta, hein handi batean, hizkuntzaren erabileran ere bai. Jakinekoa da eskolaren zeresana handia dela euskal hiztunari hizkuntza-baliabideak eskaintzeko arduran. Egitekoak egiteko eta erantzukizunak erantzukizun, ikasleen hizkuntza-ezagutza zabaltzeko buruhausteez itzalpean utzi ohi dute ikastetxeek hizkuntzeekin, eta batez ere hizkuntza gutxituekin, duten zeresana uste positiboak sortzeko eta transmititzeko eginkizunean. Hain zuzen ere, eskolak euskararekiko atxikipen –edo atxikipen ezaren– gune erabakigarriak dira, hots, euskara-hiztun berrien autoestimuan, hizkuntzarekin hertsiki lotutako uste indargarri edo ahultzaileen harrobi izatean.

Azken hamarkadotan, Europan zein nazioartean, irakasleen usteak modako iker-alor bilakatu dira hezkuntza eleaniztunaren esparruan, bereziki hizkuntza minorizatua eleaniztasunaren ekuazioan txertatzen denean. Euskal Herrian Hegoaldea ez da salbuespen, eta lehen mailako erronka du euskara eredu eleaniztunearan egokitzeke aferan, ereduaren ardatz gisa finkatu eta ahal bezainbeste profitatzeke deman. Euskararen egoera soziolinguistikoari beha, Amonarrizek (2019) azpimarratzen du hizkuntza bidegurutzean dela, sarritan egon izan dela, baina oraingoa ekidin ezinekoa dela. Paradigma-aldaketa aipatzen du tolosarrak: ezagutzaren arotik erabilerarenera. Fokua Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemetan jarririk: zeintzuk dira Hegoaldeko Lehen Hezkuntza irakasleen usteak euskararekiko? Eta curriculumeko gainerako hizkuntzekiko?

Esku arteko ikerketa hau doktorego-tesi baten barnean eginiko ikerlana da, eta Hegoaldeko Lehen Hezkuntza irakasleen eleaniztasun-usteak ikeritzen dira euskara izanik erdigune. Honako ikerketak, beraz, irakasleen usteak izango ditu ikergai, ondorengo bost ezaugarriak izanik arretagune nagusi: lehenengoa, norberak bere buruari aitortutako euskara-, gaztelera-, ingeles-, eta frantses-mailei loturiko usteak; bigarrena, lau hizkuntza horiekiko, norberak hizkuntza bakoitza ezagutzeari ematen dion garrantzia; hirugarrena, hizkuntza bakoitza ikasterako orduan, norbanakoak egotzen dion zailtasun-maila; laugarrena, online-galdetegi bidezko datu-jasotzea izaki,

irakasleek inkesta betetzerakoan egindako hizkuntza-hautaketa (euskara, gaztelania eta ingelesaren artean); bosgarrena, hizkuntza jakin bat hautatu izanaren arrazoia. Luze gabe, ikerketak asmo du eleaniztasunaren, usteen eta euskararen bueltan eginiko azken ikerketak ekartzea, testuinguruan jar-tzea eta honako ikerketa ondorioekin zubi-lanak egitea.

## 2. Oinarri teorikoa

Honako atal honetan, ikergaiari buruzko nozio eta ikuspegi orokorrak ekarriko dira. Horiek guztiak eleaniztasunaren talaiatik eginak izango dira, alde batetik, nazioarteko ikuspegiak eta boladan diren ekarpenak Euskal Herrira ekartzeko eta, bestetik, gurean bertan eginiko azterlanen ondo-rioak hedatzeko. Hein berean, euskararen egoera soziolinguistikoari men egin eta berau ikergune dituzten lanak aztertuko dira; halaber, Hegoaldeko testuinguruan egindako ikerketa izaki, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) eta Nafarroako Foru Komunitateko ekarpenei egingo zaie bere-ziki so, eleaniztasunaren, euskara eta jarrearen, usteen nahiz egoeraren az-terketa kritikoa egiteko. Ondoren, esku arteko ikerketa honek, fokuan izanik irakasleen usteak gaiaren inguruko ekarpenak eta ikerketak azaldu-ko dira labur-labur.

Azken berrogeita hamar urteotan, Europar Batasunak hizkuntzekin har-tutako hainbat erabaki mugarri suertatu da eleaniztasunaren oinarriak fin-katzerako garaian, eta, hori dela kausa, erro eleaniztuneko makina bat pro-positamen aurrera eramane da Mundu Zaharraren alde honetan (Cenoz & Gorter 2019; García & Otheguy 2020). Urteen poderioz eleaniztasunaren definizioa bere egin dute nazioek, estatuek, estaturik gabeko nazioek eta lurraldeek; egonarrizko zizelkariak lez, astiro joan dira moldatzen eleanizta-suna haren lurraldetasunera, egoera soziolinguistikora, eskumenetara eta testuinguru historiko-sozialera. Harik eta egungo eleaniztasunaren noziora iritsi arte, eleaniztasunak betekizun erabakigarria baitu hezkuntzan, akade-mian eta gizartearen (Gorter & Arocena 2020). Inolako ezbairik gabe, elea-niztasuna kontzeptu gisa garatu egin da, eta erroetan sakondu du, gizartearen ezaugarri behagarri eta berezko bilakatzeraino.

Eleaniztasunak tartekari-lana du, eta eskolaren eta gizartearen arteko elkar-ulertzean oinarritzko funtzioa dauka, izan ere, haien arteko harremana dialektika bidezkoa da, eta gizartearen ezaugarriok eskoletan islatzen dira (Cenoz & Santos 2020). Euskal testuinguruan, eleaniztasunari gehitzen zaizkio bertako hizkuntzaren transmisioaren, hedatzearen eta normalizazioaren erronkak. Eta horiei aurre egiteko lanabesak, tartea eta aukerak ezberdinak dira hiru administrazioetan (Erdocia 2018). Edonola ere, iraganeke ikuspegi elebakarrak galbidean daudela esan daiteke (García & Otheguy 2020), eta ikuspegi eleaniztun abegikorrek bide berriak argitu dituzte hizkuntza gutxituen berreskuratze, ahalduntze eta transmisioaren egitas-moei dagokienean (Cenoz & Gorter 2019).

Ildo horretan, inflexio-puntua goiburu bereko bi lanek ekarri dute: *The Multilingual Turn*-ek (Conteh & Meier 2014; May 2014). Izen bereko bi ekarpen horiek iraultza sortu dute eleaniztasuna ulertzeko eta, batez ere, ikertzeko maneran; izan ere, oro har, eleaniztasuna ikuspegi elebakarrarekin ikertua izan da ordura arte. Ezaugarrien artean, eleaniztasunaren hitz-jarduna malgu ulertzen du, hizkuntzen arteko “purutasuna” ekidin, eta eleaniztunak dakizkien hizkuntzei likidotasun propietatea aitortzen die, hizkuntzak helburu komunikatibo eta sozialak baiatauzka, eta eleaniztunak bere esku dauden baliabide linguistiko guztiak darabiltza ekintza komunikatiboetan.

Eleaniztasuna ulertzeko zorua bi ekarpenok izaki, esku arteko ikerketa honen euskarri teorikoa Cenoz eta Gorter-en (2014) *Focus on Multilingualism* da. *The Multilingual Turn* en ulerkeran sakondu egiten du lanak. Ikuspegi eleaniztunak ez ditu hizkuntzak protagonistatzat, aitzitik, hizkuntzen arteko mugak are lausoago ulertzen ditu, eleaniztuna izanik hizkuntzen artean nabigatzaile. Eleaniztunaren ezagupen linguistiko oro da hizkuntza-ikaskuntzaren hauspo, komunikaziorako baliabide, eta paradigma horretan ulertzen du eleaniztuna, inola ere ez eleaniztunak ezagun dituen hizkuntza horien guztien eta bakoitzaren hiztun elebakarraren (natiboaren) mailan. Funtzio soziala jomuga, zuzentasunak hondarreko protagonismoa du; historian zehar, eleaniztuna hiztun-herren gisa kontsideratua izan da, eta eredu berriak hiztun oso bezala ulertzen ditu komunikaziorako, aukera eta baliabide-sorta gehiago eta zabalagoarekin.

Azaldu berri ditugun hezkuntza-berrikuntza eta proposamen pedagogiko aurrerazaleei men eginez, Hegoaldea ez da salbuespen, euskal hezkuntzan aldaketa eta doitze gradualak jazo baitira, Europan hedatzen ari diren eleantiztasun-ikuspegi berri eta abangoardiakoekin. Ezberdintasunak ezberdintasun, esan liteke eredu eleaniztunen aldeko irakaskuntzaren bidean sakontzen ari direla EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean, bilakaturik hiru eleko irakaskuntza beren identitate-zeinu. Hala eta guztiz ere, ikasleak eskolatzeko hizkuntza-ereduari begira, EAEko eta Nafarroako Foru Komunitateko datuek hainbat joera erakusten dute. Alde batetik, EAEn, 2021-2022 ikasturteko datuek adierazten dute Lehen Hezkuntzako ikasleriaren % 77,8 D ereduan eskolatzten dela, % 18,3 B ereduan eta % 3,2 A ereduan (Eustat, 2022); Nafarroan, aldiz, D ereduan eskolatutako ikasleen ehunekoa ez da % 18ra iristen, A ereduan % 15 inguru, B eredua erabat hondarrekoa da eta G ereduan matrikulatzen da ikasle gehien: % 67 (Nastat, 2020). Bi errealitateen arteko aldea hertsiki loturik dago 18/1986 Foru Legearekin, abenduaren 15ekoarekin, euskarari dagokionez (Nafarroako Foru Komunitatea, 1986); eta 159/1988 Foru Dekretuarekin, maiatzaren 19koarekin (Nafarroako Foru Komunitatea, 1988). Halaber, Nafarroako Hezkuntza Sistema Publikoan D ereduan ikasteko eskubidea 4/2015 Foru Legearekin, otsailaren 24koarekin, berritua izan da (Nafarroako Foru Komunitatea, 2015), aurretiko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatu, eta eremu ez-euskalduneko Hezkuntza Sistema Publikoan D eredua hautatzeko eskubidea bermatuko lukeena.

Euskaraz hezia izateko aukerak bi egoera ezberdin ekarri ditu euskararen ezagutzari buruz. Batetik, EAEn euskararen ezagutza % 71,4koa da 16-24 urte bitartekoen artean, % 49,3koa 25-34 artekoenean, eta kopurua emeki gutxitzen doa % 22,4 arte >65 urtekoengan (Nastat, 2020). Bestetik, Nafarroan, euskararen ezagutza zonifikazioaren arabera arras aldatzen da: eremu euskaldunean, % 13 da gaztelaniadun elebakar; eremu mistoan, % 77; eta eremu ez-euskaldunean, % 90 (Eusko Jaurlaritza, 2016). Euskararen erabilerari dagokionez, ezagutza-maila hazi den heinean euskararen erabilerak ez du gora egin, eta euskara bidegurutzean da, palanka eta estrategia berrien beharrean (Amonarriz, 2019). Erabilerari buruzko azken txostenean (Sorolla *et al.*, 2019), esan daiteke euskal eta erdal munduak hibridatu eta

orain arteko ezaugarri soziolinguistikoak nahasten ari direla, eta honako alderdi hauek azpimarratzen dira: gazteek euskara ezagun dute eta biziberritze-prozesuak ari dira gertatzen tradizioz gune euskaldunak ez ziren lekuetan; halaber, hizkuntza-gaitasuna ez da balio hutsezina errealitatea identifikatzeko, hobe litzatekeelarik hizkuntza-identifikazioan sakontzea; globalizazioa eta migrazioa euskararen eremuetan aldaketak hauspotzen ari direla; euskara modernitatearekin lotzearen garrantzia; eta *sandwich efektua* delakoa, errenta eta euskara elkarlotzen dituen, hau da, erdi-mailako klaseetan (irakasleak, funtzionarioak, lanpostu egonkordunak) euskararen erabilera nabarmenagoa dela. Hori dela bide, esku arteko ikerketa honek irakasleen, erdiko klase aktibo horren, hizkuntza-hautaketa eta hizkuntzei atxikitako usteen azterketa du helburu.

Ikerketak ikerketa, mamitsua da euskararen erabileraren eta ezagutzaren artean HUIHEZIn eginiko ikerketa, bertako Hezkuntza fakultatean binomioaren arteko oreka zertan den ikertu baitute (Garcia *et al.*, 2017). Ikerketa-ondorioen artean, honakoak dira esanguratsuenak: bat, hezkuntza-fakultateko kafetegian –leku informalean– erabili da euskara gehien, izanik ikasleak eta irakasleak nahasirik dabilzan eremua; bi, ikaskideen % 66k baino gehiagok darabil euskara, baina erabilera % 37ra jausten da lagunartean; hiru, ikasleek euskararen aldeko jarrera eta ezagutza-maila ona izan arren, ezin da erabilera ziurtatu; eta lau, ikasleen identitate kulturala euskalduna izanik ere, identitate etnolinguistikoa ez dute euskararekin soilik identifikatzen, gaztelaniarekin nahasirik baizik.

Izan ere, euskararen egoera soziolinguistikoa ez da bera Euskal Herri osoan; aitzitik, ezberdintasun nabariak daude. Gai hori ardatz, 2017ko Udako Ikastaroan egindako hiru mahai-inguruak leudeke, Euskal Herriko hiru administrazioen azterketa, sintesi eta erronkak plazaratzeko asmoz (Azurmendi *et al.*, 2018). Ondorioak honako bost puntu hauetan laburbildu ditugu: bat, hiru administrazioek bat egiteko aukera dute euskararen aferan, Nafarroako hizkuntza-politika hastapenetan izanik (Euskarabidea) eta Iparraldean hizkuntza-politikari buruzko erabaki politiko partekatu eta instituzionalerako lehen habeak jarririk (EEP); bi, harreman-hizkuntzan gaztelaniak eragin handia izanik eta berau aldatzea zinez zaila baldin bada ere, egin egingarria da, baina halere kezagarria da haurren artean erabilerak egin

duen beherakada; hiru, euskararen erabilera instrumentala hazi egin da, baina norberaren beste espazioetakoak ez; lau, euskararen aldeko jarrerak gora egin duen heinean, erabilerak ez du joera berdina izan, eta, etorkizun hurbi-lean, hiztunaren hautua izango da euskaraz mintzatzea, esaterako, Bilbo bezalako hiri batean hamar hiztun berriren artean batek soilik izanik erraztasun handiagoa euskaraz mintzatzeko; bost, jarrera eta usteak alde ditu euskarak, eta baliabideak nahiz eragileen (publiko eta euskalgintzaren) elkarlana profintatu beharrean da erabileran aurrerapausoak emateko. Testuinguru horretan, Martínez de Lunak (2018) zehazten du euskararen errealitatea Europako beste hizkuntza gutxituen antzekoa dela, eta eleaniztasunaren paradigma baliatu behar duela Euskal Herriak euskaltasun berri bat sortu eta helduleku berriak eraiki ahal izateko hizkuntza gutxituaren etorkizuna bermatzeko; izan ere, teorian, Europako testuinguruan eleaniztasuna onartzen bada ere, praktikan, nabariak dira elebakartasunaren zantzuak.

Eleaniztasuna nazioarteko ikuspegitik xehatu dugu, eta ondoren etxera egin dugu euskarari lotutako jarrerak, hizkuntza-mailak eta erabilerak aztertzeko. Oinarri teorikoaren azken lerroak profitatuko ditugu usteak zer diren azaltzeko eta horien zeresana balioan jartzeko. Adieraren errora joz gero, kontzeptuari ez zaio definizio bateraturik eman konstruktus desordenatu gisa ulertzen delako, batetik, berezkoa duen konplexutasunagatik eta, bestetik, bere baitan duen ikuspuntu ezberdin eta askotarikoengatik (Pajares 1992). Oro har, usteak irakaslearen ezagutzaren osagai dira, irakaskuntzaren alde ikusezinari dagozkionak (Borg 2003), pentsatzen, sinesten eta irakaskuntzari loturiko testuinguru-faktoreekin harremanetan (Borg 2006), irakaslearen jarduna ardaztu, egituratu eta ekintzak zuzentzen dituztenak (Borg 2011). Hizkuntzei atxikitako usteak, irakaslearen jardunean islatzeaz gain, hizkuntza-irakaskuntzarako giltzarri dira informazioa sailkatu, iragazi eta egokitzeke (Li 2012). Usteek isla dute hizkuntzetan eta jardunetan, eta, beraz, garrantzi handikoak dira irakasleek curriculumeko hizkuntzekin dituzten usteak arakatzeko (euskararen kasuan, bereziki); izan ere, irakasleek hizkuntza gutxituarekin dituzten usteak ikertzeak termometroaren funtzioa izango luke, horri lotutako ezkutuko pentsamendua argitan jartzeko euskararen ezagutzan, transmisioan eta erabileran hain funtsezko diren eragileen artean: Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleak, alegia.



### 3. Metodologia

Hegoaldeko Lehen Hezkuntzako irakasleen usteak arakutzen erabilitako metodologia kuantitatiboa da, online-galdetegi bidezkoa, eta, ikerketaren izaera deskribatzailea da. Atal honetan, emaitzak lortze bidean emandako pauso guztiak zehaztuko dira, hala nola, ikerketa-laginarene ezaugarriak, instrumentua, datuen jasotzea eta analisiak.

#### 3.1. Ikerketa-lagina

Esku arteko ikerketa honetako partaideak Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako lurraldeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleak izan dira. Datuok 2017/2018 ikasturte akademikoan jaso dira, eta, guztira, 418 irakaslek osatzen dute lagina. Zehazki, esku arteko lagin hau handia eta esanguratsua izanik ere, ez du hezkuntza-unibertso osoa ordezkatzeko. Horietatik guztietatik, 331 (% 79,2) emakumezkoak dira, 83 (% 19,9) gizonetzkoak eta 4 (% 1) ez-binario. Hain zuzen, 90 (% 21,5) ari dira Haur Hezkuntzan irakasten, 238 (% 56,9) Lehen Hezkuntzan eta beste 90ek (% 21,5ek) bi lanak uztartzen dituzte.

Irakasleen batezbesteko adina 43,3koa da, izanik 23 urtekoa irakaslerik gazteena eta 64koa zaharrena. Irakas-erperientziari beha, laginarene batezbesteko denbora 18,6 urtekoa da, izanik 4 hilabetekoa laginarene esperientzia minimoa klaseak ematen eta 40 urtekoa maximoa. Lehenengo hizkuntzari dagokionez, 174 (% 41,6) irakaslek euskara dute ama-hizkuntza, 190ek (% 45,5ek) gaztelania, 52k (% 12,4k) euskara eta gaztelania eta 2k (% 0,5ek) beste hizkuntza bat.

Jaiolekuari erreparatuta, 167 (% 40) Gipuzkoakoak dira 144 (34,4 %) Bizkaikoak, 24 (% 5,7) Arabakoak, 60 (14,4 %) Nafarroakoak, 21 (% 5) Espainiakoak eta 2 (% 0,2) beste lurraldetakoak. Lurraldeak lurralde, 133 (% 31,8) Gipuzkoan ari dira irakasten, 138 (% 33) Bizkaian, 56 (% 13,4) Araban eta 91 (% 21,8) Nafarroan. Klaseak emateko hizkuntzari begira, 209k (% 50k) euskara darabilte, 16k (% 3,8k) gaztelania, 41ek (% 9,8k) ingelesa, 107k (% 25,6k) euskara eta gaztelania, 28k (% 6,7) euskara eta

ingelese, 3k (% 0,7k) gaztelania eta ingelese eta 14k (% 3,3k) euskara, gaztelania eta ingelese.

Irakasleek jasotako hizkuntza-ereduari begira, 200ek (% 47,8k) D ereduak jaso dute, 37k (% 8,9k) B ereduak, 97k (% 23,2k) A ereduak, 77k (% 18,4k) G ereduak eta 7k (% 1,7k) beste eredu batzuk. Gogoan hartu beharrekoa da D ereduak izan dituen mugak, ereduak 1982. urtean sartu eta astiro hedatzen joan baita euskaran murgiltzeko aukera. Aldiz, egun irakasleek irakasten duten hizkuntza-ereduari erreparatuta, 353 (% 84,4) D ereduan daude, 26 (% 6,2) B ereduan, 20 (% 4,8) A ereduan, 11 (% 2,6) G ereduan eta 8 (% 1,9) beste ereduetan ari dira. Eta eskolatzeko-ereduari dagokionez, 287 (% 68,7) irakasle ari dira eskola publikoan, 67 (% 16) itunpeko eskolatan eta 64 (% 15,3) Ikastolen Elkarteetan.

### 3.2. Instrumentua

Online-galdetegi bitartez jaso dira irakasleen usteak, eta instrumentuaren oinarri dira DREAM (*Donostia Research on Education And Multilingualism*) ikertaldeak aurretiaz erabilitako galdetegiak, eta haren egitura itxia da. Ikerlanaren izaera tarteko, doktore-tesi ikerketa bati dagokion galdetegi luzeago baten bost aspektu zehatz aztertu dira: bat, norberak bere buruari aitortutako euskara-, gaztelania-, ingeles- eta frantses-mailen usteak; bi, lau hizkuntza horiek ikasten bakoitzari atxikitzen dion zailtasun-maila; hiru, hizkuntza bakoitzari norbanakoak emaniko garrantzia; lau, galdetegiaren hizkuntza-hautaketa; bost, hizkuntza hori hautatu izanaren arrazoia.

Lehenengo hiru aspektuetan, Likert eskala baliatu da, 0tik 4ra, oso txikitik oso handira. Laugarrenean, galdetegiaren hiru hizkuntzak zerrendatu dira bat aukeratzeko. Eta bosgarrenean, zazpi aukera eman dira hizkuntza hautatu izanaren arrazoi gisa. Galdetegi osoa DREAM ikertaldeko bost ikertaldekiderek eta zortzi Lehen Hezkuntzako irakasleekin pilotatu da, izan zitzakeen ulermen-arazoak, hobetzeko aspektuak eta bestelako akatsak zuzentze aldera. Galdetegi hiru hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) eskaini zaie, eta partaideek askatasunez aukeratu dute. Galdetegi

osoak hiru atal nagusi ditu: lehenengoa, eleaniztasunaren ingurukoa; bigarrena, hizkuntza-irakaskuntza eta -ikaskuntza prozesuei buruzkoa, eta hirugarrena, metodologiei buruzkoa. Orotara, partaideek 30 minutu baino gutxiago behar izan zuten galdetegia bete ahal izateko.

### 3.3. Datuak jaso eta analisiak egitea

Galdetegia eratzeko eta irakasleen artean hedatzerako garaian, *Encuestafácil* programa erabili da, UPV/EHUren lizentziarekin (<https://www.encuestafacil.com>). Bi erkidegoetako hezkuntza-sailak arakatu, eta zerrenda osatu da ikastetxe guztiekin; ondoren, horietara bidali dira galdetegirako gonbidapenak, bertan erantsirik galdetegia betetzeko esteka eta beharrezko azalpen eta argibide guztiak. Era berean, mezuari baimen-agiriak eta egiaztagiriak atxiki zaizkio. Hain zuzen ere, zuzendariei luzatu zaie gonbidapena, eta, ondoren, haien esku gelditu da parte hartzeko erabakia. Gainera, onartzekotan, zuzendariek ikerlariak luzatutako gonbidapena birbidali diete ikastetxeko irakasleei, bermaturik erabateko anonimotasuna eta parte-hartze librea.

Galdetegia erabilgarri egon da 2018/04/11tik 2018/06/06 bitartean. Ikerketa-proiektuak Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordearen onepena jaso du (identifikazio-kodea: M10\_2017\_143) eta haiek iritzitako jarraibide eta moduetan jaso eta analizatu dira datuak, erabateko anonimotasuna, konfidentziasuna eta parte-hartze librea bermatu ahal izateko. Datu kuantitatiboen prozesamendua SPSS (26. bertsioa) programa estatistikoarekin egin da. Egindako kalkuluak estatistiko-deskribatzaileak dira, helburu izanik datuen ezaugarri nagusi eta azpimarragarrien behaketa, sailkatzea eta laburpena.


## 4. Emaitzak

Honako atal honetan erakutsiko diren emaitzek jomuga dute arestian aitatutako helburuak jorratu eta horiei erantzutea.

#### 4.1. Norberak duen hizkuntza-mailaren ustea

Ondorengo item-multzoak irakasleak bere buruari aitortzen dion hizkuntza-gaitasunaren ustea neurtzen du. Horretarako, lau hizkuntza zerrendatu dira: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa; eta, ondoren, bakoitzean norberak aitortutako hizkuntza-maila bost aukeren artean: oso txikia, txikia, ertaina, handia eta oso handia. Emaitzak erakusgai daude 1. Irudian.

##### 1. Irudia: Norberak duen hizkuntza-mailaren ustea




Datuek argi azaltzen dute, lauron artean, bi hizkuntza direla hizkuntza-maila handienak dituztenak: gaztelania eta euskara, hurrenez hurren. Zehazki, gaztelaniaren kasuan, % 93,8k (OH: 48,6; H: 45,2) maila handia aitortu du, eta, euskaran, % 87,8k (OH: 40,2; H: 47,6). Aldiz, txanponaren ifrentzuan, apalak dira ingelesean eta frantsesean hizkuntza-mailaren emaitzak, izan ere, % 47,6k (OT: 20,1; T: 27,5) eta % 91,1ek (OT: 69,1; T: 22) maila baxuak adierazi dituzte, hurrenez hurren.

#### 4.2. Hizkuntzari emandako garrantzi-mailaren ustea

Honakoan, aurreko item-multzoan egin dugun antzera, norberak hizkuntzari ematen dion garrantziaren ustea neurtu da, lau hizkuntzetan eta ba-

koitzean bost mailaren edo graduren artean aukera emanik. Hizkuntza bakoitzarekiko datuen berri ematen du 2. Irudiak.

## 2. Irudia: Hizkuntzari emandako garrantzi-mailaren ustea




Datuek azpimarratzen dute irakasleek honako hurrenkera honetan ematen dietela garrantzia hizkuntzei: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa. Irakasleen % 93k (OH: 72,7; H: 20,3) garrantzi-maila handia ematen dio euskarari, eta % 3,1ek (OT: 1,4; T: 1,7) garrantzi-maila txikia. Gaztelaniaren eta ingelesaren kasuan, datuak nahiko berdintsuak dira: % 73,7k (OH: 38,5; H: 35,2) eta % 71,5ek (OH: 30,1; H: 41,4) garrantzia maila handiak ematen dizkiete, hurrenez hurren. Frantsesaren kasua bestelakoa da, izan ere, hizkuntza-mailarekin gertatu bezala, arras baxuagoa da beste hirurekin konparatuta. Hain zuzen ere, soilik % 23,5ek (OH: 7,7; H: 15,8) ematen diote garrantzia hizkuntzari, eta % 37,1ek (OT: 13,9; T: 23,2) garrantzi-maila txikia.

### 4.3. Hizkuntza ikasteko zailtasunaren ustea

Oraingoan, hizkuntza bakoitza ikasteko zailtasuna neurtuko da, aurrekoetan bezala, maila oso txikiaren eta oso handiaren artean, bost aukera emanik gutzira. Ondorengo 3. Irudiak uste horiek biltzen ditu.

### 3. Irudia: Hizkuntza ikasteko zailtasunaren ustea




Datuek islatzen dute, oro har, gaztelania (% 57,2), ingelesa (% 58,9), frantsesa (% 56,7) eta euskara (% 41,1) ikasterako garaian irakasleek duten neutraltasuna. Ehunekoei erreparatuz gero, gaztelania da zailtasun-maila txikiena duen hizkuntza, irakasleen % 30,6k maila txikiak (T: 19,4) eta oso txikiak (OT: 11,2) eman dizkiete-eta. Aldiz, irakasleen % 35,4k (OH: 4,3; H: 31,1) eta % 37,1ek (OH: 7,2; H: 29,9) zailtasun-maila handiak eman dizkiete ingeles eta frantses hizkuntza-ikaskuntzei, hurrenez hurren. Eta lauren artean, euskara da zailtasun-maila handiena jaso duen hizkuntza, % 51,5ek (OH: 14,4; H: 37,1) euskara ikastea zaila den ustea baitu.

#### 4.4. Galdetegiko hizkuntza-hautaketa eta arrazoiak


Lehen eta Haur Hezkuntza esparruetan eginiko ikerketa honek, galdetegiaren hizkuntza hautatzeko aukera eman dio parte-hartzaileari: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Irakasleen hizkuntza-hautuak erakusgai daude 4. Irudian. Aukeren artean, galdetegiaren hiru hizkuntzen artean, euskara izan da erabiliena, irakasleen % 67k (N= 279) erabaki baitu galdetegia euskaraz betetzea; aldiz, % 33k (N= 137) gaztelania aukeratu du, eta erabat apala izan da ingelesarena (N= 2).

#### 4. Irudia: Galdetegiko hizkuntza-hautaketa



Galdetegiko azken itema egindako hizkuntza hautuaren arrazoiarena da: “Zergatik aukeratu duzu galdetegia hizkuntza honetan betetzea?”. Galdera-ri erantzun ahal izateko, zazpi aukera eskaini zaizkio irakasleari, eta erantzunak hizkuntza bakoitzean sailkatu dira, ehunekotan (Ikus 5. Irudia).

#### 5. Irudia: Galdetegiko hizkuntza-hautaketaren arrazoa



Hizkuntzaz hizkuntza, datuek erakusten dute zer arrazoi dauden bat edo beste hautatzearen atzean. Zazpi aukeren artean galdetegia euskaraz betetzea erabaki dutenen artean, % 43,4k adierazi dute hizkuntza-atxikimendua; aldiz, gaztelaniaz egin dutenen artean, soilik % 5,1ek egin du atxikimendua aukera. Gaztelaniaz erantzutea hautatu dutenen artean,

erdiak (% 50,4) erraztasunagatik hautatu duela dio; eta euskaraz egin dutenen artean, aldiz, laurdenak. Galdetegia gaztelaniaz bete dutenen artean, % 21,9k oharkabean aukeratu du hizkuntza hori, eta euskaraz bete dutenen artean, ordea, irakasleen % 12,9k. Azpimarragarria ere bada ulermen arazo posibleak ekidite aldera irakasleek egin duten hautua: gaztelania hautatu du irakasleen % 13,1ek, eta, euskara, % 1,1ek soilik. Kontrara, hezkuntza alorreko hizkuntza delako aukeran irakasleen % 13,6k hautatu du euskara eta % 1,5ek gaztelania.

## 5. Eztabaida eta ondorioak

Honako atal honetan, esku arteko ikerketa honen emaitza esanguratsuenak eztabaidatu eta ondorio azpimarragarrienak nabarmenduko ditugu. Oinarri kuantitatiboko lana izaki, aztergai izan dira 418 irakasleren hizkuntza-usteak, hau da, irakasleek hizkuntzei –euskarari bereziki– atxikita dituzten ustek aztertzea honako bost aspektu hauetan: hizkuntza-mailan, garrantzi-mailan, zailtasun-mailan, galdetegirako hizkuntza-hautaketan eta horretarako arrazoietan.

Lehenik eta behin, irakasleen hizkuntza-mailei buruzko usteei erreparatuz gero, emaitzek ondorio garbiak adierazten dituzte. Irakasleek, hurrenez hurren, gaztelania- eta euskara-maila handia dutela uste dute. Hain zuzen ere, hamar irakasletik bederatzik dute uste hori. Datuetan sakondurik, erabat azpimarragarria da oso txikia dela euskara-maila apala duela uste duen irakasleria, eta gaztelaniaz ez dagoela irakaslerik bere buruari maila apala aitortu dionik. Txanponaren ifrentzuan, ingelesa eta frantsesa leudeke. Bietarik lehenengoan, irakasleriaren erdiak hizkuntza-maila txikia adierazi du, eta laurdenak ingeles-maila handia; bigarrenean, aldiz, arras dibertsifikazio gutxiago dago, ez baitago apenas irakaslerik maila altua duenik, gehiengoak maila txikia erakutsi baitu. Hegoaldeko irakasleek Euskal Herriko eleaniztasuna osatzen duten hizkuntzen inguruko mailen usteek honakoa nabarmentzen dute: Hegoaldeko irakasle guztiak elebidunak direla eta irakasleriaren masa handi bat hirueledun. Alabaina, hirueleduntasun horren ekuazioan, frantsesa ez da hirugarren hizkuntza, eta aho-bilorik gabe esan



liteke Hegoaldeko irakasleek ez dutela frantsesaren inguruko ezagutzarik, eta beraz, ezin litekeela gaur-gaurkoz frantsesa beste hiru hizkuntzak bezainbeste integratu eleaniztasunaren ekuazioan. Datuok, Hegoaldeko Lehen eta Haur Hezkuntzako irakasleenak izaki, bereziki txarrak dira kontuan harturik Euskal Herrian, Iparraldean, dagoen hizkuntzetako bat dela frantsesa eta eleaniztasuna elikatuko lukeen hizkuntza bati bizkar ematen diola Hegoaldeko hezkuntzak; edonola ere, itxaropenerako aukera ere bada, Iparraldea eta Hegoaldea lotzeko hizkuntza amankomuna euskara izatea indar baitezake. Horretarako, aukerak eta bideak posible dira; orain hezkuntza- eta gizarte-eragileei dagokie zubi-eginkizuna duen hizkuntzarekin galtzada-harria jarri eta euskararen funtzioan, ezagutzan eta erabilera sakontzea. Ildo horretan, Hegoaldean bederen, esku arteko ikerketa honen ondorioek bat egiten dute arestian Azurmendi *et al.*ek (2018) egindako azterketa soziolinguistikoaren ezaugarriekin, euskarak usteak, jarrerak eta ezagutza alde dituela azpimarratu eta eragileen arteko elkarlana profitatu beharrean dela aurrerapauso esanguratsuak eman ahal izateko.

Lau hizkuntzei emaniko garrantzi-mailari buruz, hiru ondorio nagusi ateratu genitzake: lehenengoa, Hegoaldeko irakasleriaren gehiengoak hiru hizkuntza balioesten dituela: euskara, gaztelania eta ingelesa; bigarrena, euskara dela alde nabarmenarekin garrantzi-maila handiena jasotzen duen hizkuntza; eta hirugarrena, frantsesak garrantzi-maila txikiena jaso eta irakasle gehiago direla gutxiesten dutenak balioesten dutenak baino. Alde batetik, Hegoaldeko irakasleen usteen deskribapen hau baliotsu eta fidela da, hezkuntzak eta gizarteak, euskara ardatz, elebitasuna eta ingelesa hirugarren hizkuntza gisa bultzatzen eta babesten baitituzte. Bestetik, aurreko lerroetako ondorioaren bide beretik, frantsesak jasotako garrantzi-maila apalak indartzen du Hegoaldeko irakasleek frantsesa eleaniztasunaren ekuazioan ez sartzea, eta ekintza horren atzeko arrazoiak gizarteak hizkuntzarekiko duen atxikimendu mugatuaren, arrotzasunaren, motibazioaren, funtzioaren eta beharren isla izan litezke. Azken ondorio horretan sakondurik, Martínez de Lunak (2018) azpimarratu bezala, Euskal Herriak paradigma eleaniztunera egokitu behar du euskara, eta, hortaz, aukera paregabea izan daiteke Hegoaldearen eta Iparraldearen kohesiorako erreminta gisa baliatu ahal izateko.

Hirugarrenik, hizkuntzak ikasteko zailtasun-usteak izango ditugu hizpide. Hasteko, kopurua gorabehera, Hegoaldeko irakasleriaren erdiak zailtasun-maila ertaina aitortzen die lau hizkuntzei. Horien artean, irakasleen usteek adierazten dute gaztelania dela hizkuntzarik errazena ikasten; halaber, ingelesa eta frantsesa hizkuntza zailagoak dira, baina pareko zailtasun-mailekin. Eta lau hizkuntzetatik, euskara da ikasten zailena, irakasleriaren erdiarentzat izanik hizkuntza ikasten nekeza. Azken ondorioak bat egiten du Amonarrizek (2019) azaldutakoarekin, izan ere, gizartearen usteetan sakon erroturik dago euskarak berezko ezaugarri duela ikasten zaila den hizkuntza izatea. Geroari begira, interes handikoa litzateke orain Haur eta Lehen Hezkuntzako graduetan diren ikasleek (etorkizuneko irakasleek) dituzten usteak ikertzea eta bien arteko konparaketa egitea, euskarari buruzko zailtasun-usteen joera ezagutze aldera.

Azken ondorioa ateratzeko laugarren eta bosgarren ikerketa-emaitzak bateratu ditugu, galdetegian irakasleek erabilitako hizkuntza eta berau hautatu izanaren arrazoa. Lehenik, gogoan izanik honako ikerketa hau tesi-ikerketa zabalago eta luzeago baten zati dela, azpimarratu behar da irakasleriaren gehiengoak euskara hautatu duela galdetegi luzea bete ahal izateko; modu bertsuan, azpimarragarria bezain kontuan hartzekoa ere bada, euskara teoriar indartsu den alorrean, hezkuntzan, gaztelania galdetegi-hizkuntza gisa aukeratu dutenen kopurua; hots, euskarak haizea alde duen esparruan *lingua franca*k duen pisua. Hala, Hegoaldeko irakasleen hizkuntza-hautaketari behatuz, ondoriozta daiteke uste nagusi bana errotzen dela euskararen eta gaztelaniaren atzean. Alde batetik, hizkuntzarekiko atxikimendua da euskaraz hautatzen dutenen arrazoi nagusia; halaber, bigarren mailako arrazoi erraztasunarena da. Bestetik, erraztasuna da arrazoi nagusi gaztelaniaz egitea erabaki dutenen artean; gainera, bigarren mailako arrazoi gisa, oharkabean hizkuntza hori hautatu izana dago. Ondorioztapen orokorrik egitea ezinezkoa baldin bada ere, esku arteko ikerketa honen ondorioek iradokitzen dute euskararen atzean babesteko usteak eta jarrerak daudela, hizkuntza gutxituarenganako atxikimenduan behagarri direnak; hein berean, ulergarria ere bada Hegoaldeko irakasleek euskararekin erraztasun handiagoa izatea hezkuntzarekin lotutako gaiet buruz galdetu eta erantzuterakoan. Era berean, *lingua franca* eta Hegoal-

dean hedatuena izaki, logikoa da erraztasun handiagoa izatea gaztelaniarekin; edonola ere, azken datu horretan sakonduz gero, esanguratsua bezain iradokitzailea da gaztelania hautatu dutenen irakasleen artean hizkuntzarekiko duten atxikimendu-eza, iradokirik hizkuntza horren atzean funtzio utilitarista egon litekeela.

## 6. Erreferentzia bibliografikoak

AMONARRIZ, K. (2019). *Euskararen bidegurutzetik*. Elkar.

AZURMENDI, N., ANDUAGA, U., URANGA, B., & GOIKOETXEA, G. (2018). «Arduradun politikoez, eragile sozialez eta unibertsitateko adituek esandakoaren kronika», Udako Ikastaroko mahai-inguruak. *BAT Soziolinguista Aldizkaria*, 2018(106), 147–175.

BASQUE AUTONOMOUS COMMUNITY. (1982). Law for the Normalization of Basque. Ley 10/1982, BOPV 16- 12-1982

BORG, S. (2003). «Teacher cognition in language teaching: A review of research on what language teachers think, know, believe, and do». *Language Teaching*, 36(02), 81–109. <https://doi.org/10.1017/S0261444803001903>

——— (2006). *Teacher Cognition and Teacher Education: Research and Practice*. Continuum.

BORG, S. (2011). «The impact of in-service teacher education on language teachers' beliefs». *System*, 39(3), 370–380. <https://doi.org/10.1016/j.system.2011.07.009>

CENOZ, J., & GORTER, D. (2014). *Focus on Multilingualism as an Approach in Educational Contexts* (239–254. or.). [https://doi.org/10.1007/978-94-007-7856-6\\_13](https://doi.org/10.1007/978-94-007-7856-6_13)

——— (2019a). «Minority Languages, National State Languages, and English in Europe: Multilingual Education in the Basque Country and Friesland». *Journal of Multilingual Education Research*, 9(1), 61–77.

——— (2019b). «Multilingualism, Translanguaging, and Minority Languages in SLA». *Modern Language Journal*, 103, 130–135. <https://doi.org/10.1111/modl.12529>

CENOZ, J., & SANTOS, A. (2020). «Implementing pedagogical translanguaging in trilingual schools». *System*, 92, 102273. <https://doi.org/10.1016/j.system.2020.102273>

CONTEH, J., & MEIER, G. (2014). *The Multilingual Turn in Languages Education*. Multilingual Matters. <https://doi.org/10.21832/9781783092246>

ERDOCIA, I. (2018). «Medium of instruction ideologies: accommodation of multilingualism in the bilingual regime of Navarre». *Current Issues in Language Planning*, 20(3), 1–25. <https://doi.org/10.1080/14664208.2018.1503457>

EUSKO JAURLARITZA. (2016). Seigarren inkesta soziolinguistikoa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz. Retrieved from [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI\\_INK\\_SOZLG-EH\\_eus.pdf?1499236557](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557)

EUSTAT. (2022). Unibertsitatekan kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, Euskal AEn, lurralde eta irakaskuntza-mailaren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraiki. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/matricula\\_graficos\\_evolutivos/eu\\_def/adjuntos/EAE\\_ere-dua\\_OBLIG.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/matricula_graficos_evolutivos/eu_def/adjuntos/EAE_ere-dua_OBLIG.pdf)

GARCIA, L., ARRATIBEL, N., & IRIZAR, A. (2017). «Euskararen ezagutza eta erabilera binomioa: Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko 1. mailako ikasleak ulertzeko gakoak». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 4(105), 163–199.

GARCÍA, O., & OTHEGUY, R. (2020). «Plurilingualism and translanguaging: commonalities and divergences». *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 23(1), 17–35. <https://doi.org/10.1080/13670050.2019.1598932>

GORTER, D., & AROCENA, E. (2020). «Teachers' beliefs about multilingualism in a course on translanguaging». *System*, 92, 102272. <https://doi.org/10.1016/j.system.2020.102272>

LI, X. (2012). «The role of Teachers' Beliefs in the Language Teaching-Learning Process». *Theory and Practice in Language Studies*, 2(7), 1397–1402.

MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2018). «Euskararen biziberritzea, eleaniztasunaren garai-ko erronka». *BAT Soziolinguista Aldizkaria*, 106(1), 47–64. [http://www.sociolinguistika.org/files/inaki\\_mtnez\\_de\\_luna\\_106.pdf](http://www.sociolinguistika.org/files/inaki_mtnez_de_luna_106.pdf)

MAY, S. (2013). *The Multilingual Turn: Implications for SLA, TESOL, and Bilingual Education* (S. May (ed.)). Routledge. <https://doi.org/10.4324/9780203113493>

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA. (1986). 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, euskarari buruzkoa. <http://www.navarra.es/NR/exeres/80CF3F15-A9C6-40B2-867B-F7C50905CCD6.htm>

——— (1988). Decreto Foral 159/1988, de 19 de Mayo, por el que se regula la incorporación y uso del vascuence en la enseñanza no universitaria de Navarra. <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=28807>

——— (2015). 24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0/>

NASTAT. (2020). Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak. <https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=3>

PAJARES, M. F. (1992). «Teachers' beliefs and educational research: Cleaning up a messy construct». *Review of Educational Research*, 62 (3), 307–332.

SOROLLA, N., ALTUNA, O., & LARREA, I. (2019). *Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak Udalerri mailako analisia: udalerri mailako analisia Laburpena eta ondorioak*. Soziolinguistika Klusterra.